**Kudeaketari buruzko txostena**
***Informe de Gestión***



**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

"BIZKAIKO SEED KAPITAL, ARRISKU KAPITALEKO ERAKUNDEAK KUDEATZEKO SOZIETATEA, S.A"-k 2013. urtean gauzatutako jardueraren oinarrizko ardatzak hurrengo hauek izan dira:

1.- Funtsaren Inbertsioak eta Desinbertsioak

2.- Funtsaren Likidezia

3.- Partaidetutako Enpresen Jarraipena

4.- Beste zenbait gai

La actividad de "SEED CAPITAL DE BIZKAIA, SOCIEDAD GESTORA DE ENTIDADES DE CAPITAL RIESGO, S.A.", durante el año 2013, ha girado en torno a los siguientes ejes fundamentales:

1.- Inversiones y desinversiones de los fondos

2.- Liquidez de los fondos

3.- Seguimiento de las empresas participadas

4.- Varios

## 1.- Fondoen inbertsioak eta desinbertsioak

Enpresa berritzaileak sortu eta abian jartzen laguntzeko zereginean, SEED CAPITAL DE BIZKAIA sozietateak ekitaldi ona izan du egin dituen inbertsioei dagokienez, kontuan hartuta gaur egun dugun egoera ekonomiko zaila.

Zifrak zehaztuz, hauek dira SEED CAPITAL DE BIZKAIAk urtean zehar egindakoak: 7 proiektutan inbertitu du, guztira, 800.000,00 euroko zenbatekoarekin. Zenbateko horretatik,750.000,00 euro ekitaldian aurkeztu eta onartu diren 6 ekimen berrietan erabili dira, eta 50.000,00 euro, berriz, Funtsek partaidetutako enpresa bat bigarrenez finantzatzeko erabili dira.

Bestetik, inbertsio osoaren 800.000,00 euroetatik, 470.000,00 € kapital partaidetzan erabili dira eta 330.000,00 €, partaidetza-maileguetan.

Ondorenez, enpresek partaidetza-maileguaren formula finantzaketa egiteko modu gehigarri gisa onartzen dutela berresten digu; hala ere, horrek ez du esan nahi SCBk oinarri berritzaileko enpresa ekimenetan behin-behineko kide eta sustatzaile gisa parte hartzeko duen filosofia pixkana galduko denik.

## 1.- Inversiones y desinversiones de los Fondos

Siguiendo con su labor de apoyo a la creación y puesta en marcha de nuevas empresas innovadoras, SEED CAPITAL DE BIZKAIA ha cerrado un buen ejercicio en cuanto a inversiones realizadas, teniendo en cuenta la delicada situación económica en la que nos encontramos inmersos.

Concretando en cifras, a lo largo del año SEED CAPITAL DE BIZKAIA ha realizado la inversión en 7 proyectos por un importe total de 800.000,00 €. De este importe,750.000,00 euros han sido destinados a 6 nuevas iniciativas presentadas y aprobadas en el ejercicio, mientras que 50.000,00 euros se han invertido en una segunda financiación a una empresa ya participada por los Fondos.

Por otro lado, de 800.000,00 € de inversión total, 470.000,00 € han sido en participación en capital, y 330.000,00 € en préstamos participativos.

Esto nos confirma la buena aceptación por parte de las empresas del préstamo participativo como forma de financiación adicional, sin que ello conlleve la pérdida progresiva de la filosofía distintiva de SCB como socio temporal e impulsor de iniciativas empresariales de carácter innovador.

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

Horrenbestez, egindako inbertsioei dagokienez, %94 enpresa sortu berriei dagokie, eta %6 finantzaketarako bigarren txandei dagokie. Proiektu bakoitzaren batez besteko inbertsioa 114.286 eurokoa izan da, hau da, aurreko urteetako batez bestekoa baino pixka bat gutxiago.

Como conclusión, de las inversiones realizadas, el 94% corresponden a empresas de nueva creación, y un 6% corresponden a segundas rondas de financiación. La inversión media por proyecto ha sido de 114.286 €, ligeramente inferior a la media de los años anteriores.

Desinbertsioei dagokienez, bi operazio egin eta formalizatu dira, eta ondoren ematen da horien berri zehatzagoa.

En cuanto a desinversiones, se han realizado y formalizado dos operaciones de desinversión, cuyo detalle se ofrece a continuación.

## Egindako Inbertsioak

## Inversiones realizadas

Egindako inbertsio berriak honako hauek izan dira:

Las nuevas inversiones realizadas han sido las siguientes:

| **ENPRESA / EMPRESA** | **TAPQUO S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Mugikortasun aplikazioak sortu eta garatzea.<br>Creación y desarrollo de aplicaciones de movilidad. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 120.000 € (56.230 € kapitala + 63.770 € jaulkipen-prima) %24,24<br>120.000 € (56.230 € de capital +63.770 € de prima de emisión) 24,24 % |
| **KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL** | 231.944 € kapitala / capital<br>77.056 €-ko erreserba jaulkipen-primagatik / de reserva por prima emisión |
| **INBERTSIOAK / INVERSIONES** | 250.822 € |
| **AURREIKUSITAKO ENPLEGUA / EMPLEO PREVISTO** | 7 |

| **ENPRESA / EMPRESA** | **HERMENEUS WORLD S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Elikadurako merkataritza elektronikoa.<br>Comercio electrónico de alimentación |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 200.000 € (857,20 €, kapitala + 199.142,80 €, jaulkipen-prima) %14,28<br>200.000 € (857,20 € de capital +199.142,80 € de prima de emisión) 14,28 % |
| **KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL** | 205.143,30 € kapitala / capital |
| **INBERTSIOAK / INVERSIONES** | 187.361 € |
| **AURREIKUSITAKO ENPLEGUA /** | 8 |

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

| | |
|---|---|
| **EMPLEO PREVISTO** | |

| | |
|---|---|
| **ENPRESA / EMPRESA** | **INVITROTEK SERVICIOS DE MULTIPLICACION VEGETAL S.L.** |
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Landareen in vitro ugalketa.<br>Reproducción in vitro de plantas. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 150.000 € kapitala %14<br>150.000 € de capital 14% |
| **KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL** | 1.058.300,00 € kapitala / capital |
| **INBERTSIOAK / INVERSIONES** | 448.651 € |
| **AURREIKUSITAKO ENPLEGUA / EMPLEO PREVISTO** | 6 |

| | |
|---|---|
| **ENPRESA / EMPRESA** | **STERILE SERVICES S.L.** |
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Osasun-hondakinen esterilizazioa.<br>Esterilización de residuos sanitarios. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 90.000 €, partaidetza-maileguan.<br>90.000 € de préstamo participativo. |
| **KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL** | 250.000 € kapitala / capital |
| **INBERTSIOAK / INVERSIONES** | 309.235 € |
| **AURREIKUSITAKO ENPLEGUA / EMPLEO PREVISTO** | 4 |

| | |
|---|---|
| **ENPRESA / EMPRESA** | **TALLERES BOLUETA S.L.** |
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Aluminioaren injekziozko galdaketa industriarako piezen mekanizazioa.<br>Mecanizado de piezas para la industria de la fundición inyectada de aluminio. |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 100.000 €, partaidetza-maileguan.<br>100.000 € de préstamo participativo. |
| **KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL** | 76.532,87 € kapitala/ capital |
| **INBERTSIOAK / INVERSIONES** | 100.000 € |
| **AURREIKUSITAKO ENPLEGUA /** | 11 |

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

| EMPLEO PREVISTO | |
|---|---|

| ENPRESA / EMPRESA | VIRTUALWARE 2007 S.A. |
|---|---|
| JARDUERA / ACTIVIDAD | Softwarea garatzea.<br>Desarrollo de software. |
| SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA | 90.000 €, partaidetza-maileguan.<br>90.000 € de préstamo participativo. |
| KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL | 200.000 € kapitala/ capital |
| INBERTSIOAK / INVERSIONES | 390.309 € |
| AURREIKUSITAKO ENPLEGUA / EMPLEO PREVISTO | 25 |

Dagoeneko partaidetuta dauden enpresetan egindako inbertsioak honako hauek izan dira:

Las inversiones realizadas en empresas ya participadas han sido las siguientes:

| ENPRESA / EMPRESA | DOOCUMENTS SOFTWARE S.L. |
|---|---|
| JARDUERA / ACTIVIDAD | Agiriak kudeatzeko softwarea.<br>Software para gestión de documentos. |
| SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA | 50.000 €, partaidetza-maileguan eta lehenago ekarri zenari batuta, Seed-en ekarpen osoa 120.000 €-ko kapitala eta 50.000 €-ko mailegua da.<br>50.000 € de préstamo participativo que sumado a lo aportado antes hacen una aportación total de Seed de 120.000 € de capital y 50.000 € de préstamo. |
| KAPITAL SOZIALA / CAPITAL SOCIAL | 308.448 € kapitala / capital.<br>144.552 €-ko erreserba jaulkipen-primagatik.<br>144.552 € de reserva por prima emisión. |
| INBERTSIOAK / INVERSIONES | 73.622 |
| AURREIKUSITAKO ENPLEGUA / EMPLEO PREVISTO | 5 |

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

## Egindako desinbertsioak

Egindadako desinbertsioak honako hauek izan dira:

## Desinversiones realizadas

Las desinversiones realizadas han sido las siguientes:

| **ENPRESA / EMPRESA** | **MUNDO ECUESTRE S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Zaldiak hazi eta salerostea. Zaldizko kirol-irakaskuntza eta ukuilaratze-zerbitzuak.<br>Cría y compraventa caballar. Enseñanza deportiva ecuestre y servicios de estabulaje. |
| **INBERTSIOAREN DATA / AÑO DE INVERSION** | 2002 |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 166.000,00 |
| ***DESINBERTSIOA / DESINVERSION*** | 50.000,00 |
| **GAINBALIOA / PLUSVALIA** | -116.000,00 |

| **ENPRESA / EMPRESA** | **TECNOLOGÍAS MEDIOAMBIENTALES QUÍMICAS Y CATALIZADORES S.L.** |
|---|---|
| **JARDUERA / ACTIVIDAD** | Garbiketa kimikoak, ingurumen-zerbitzuak eta garbiketa mekanikoak.<br>Limpiezas químicas, servicios medioambientales y limpiezas mecánicas. |
| **INBERTSIOAREN DATA / AÑO DE INVERSION** | 2006 |
| **SEED CAPITAL DE BIZKAIA SOZIETATEAREN EKARPENA / APORTACIÓN DE SEED CAPITAL DE BIZKAIA** | 60.000,00 |
| ***DESINBERTSIOA / DESINVERSION*** | 12.486,88 |
| **GAINBALIOA / PLUSVALIA** | -47.513,12 |

## 2.- Funtsen likidezia

### 2.1.- I Funtsa likidezia

Ondorioz, kontuan hartuta aipatutako zabalkundea, egindako kapital ordainketak, eta ordaintzeko aurreikuspenezko beste konpromiso batzuk, "Seed Capital de Bizkaia" Funtsaren baliabide likidoak honela laburbil daitezke:

## 2.- Liquidez de los Fondos

### 2.1.- Liquidez Fondo I

Teniendo en cuenta los desembolsos de capital efectuados, los recursos líquidos del Fondo “Seed Capital de Bizkaia”, quedarían resumidos de la siguiente manera:

| | Euro / Euros |
|---|---|
| Funtsaren baliabide likidoak 13-12-31n<br>Recursos líquidos del Fondo a 31-12-13 | 2.918. 645,75 |

Kopuru horietatik honako beste hauek kendu eta gehitu behar dira:

A lo que habría que añadir y deducir:

| | |
|---|---|
| Funtsaren aktibo korrontea 13.12.31n / Activo corriente del Fondo a 31.12.13 | 39.304,93 |
| Funtsaren gehikuntza, BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN eskutik, 14.01.02koa /Ampliación del Fondo de la DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, 02.01.14 | 400.000,00 |
| Funtsaren pasibo korrontea 13.12.31n / Pasivo corriente del Fondo a 31.12.13 | 53.469,66 |

Hortik ondorioztatzen da Funtsari 3.304.481,02 €-ko likidezia geratzen zaiola enpresen inbertsioetan erabiltzeko.

De ésto se deduce que al Fondo le queda una liquidez de 3.304.481,02 € disponibles para inversiones en empresas.

### 2.1.- BI Funtsa likidezia

Seed Capital Bizkaia Bi Fondo de Capital Riesgo sozietateari dagokionez, 2006ko abenduaren 28an eratu zen, 2.050.000,00 €-rekin.

2008ko ekitaldian 2.970.000,00 €-ko zabalkundea egin zen.

### 2.1.- Liquidez Fondo BI

En cuanto a Seed Capital Bizkaia Bi Fondo de Capital Riesgo, se constituyó el 28 de diciembre de 2006, con 2.050.000,00 €.

En el ejercicio 2008 se hizo una ampliación por importe de 2.970.000,00 €.

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

2010eko ekitaldian beste funts-gehikuntza bat egon zen. Bizkaiko Foru Aldundiak egin zuen osorik eta 1.050.000,00 €-koa izan zen.

Horiek horrela, egindako inbertsioak kontuan hartuta, Bi Funtsak 3.465.576,74 €-ko likidezia du proiektuetan inbertitzen jarraitzeko.

## 3.- Partaidetutako enpresen jarraipena

Sozietate kudeatzaileak garatutako jardueren artean, honako jarduera multzo hau barneratzen da: enpresa hautagaiarekin harremanetan jartzea, inbertsio proiektua era guztietan aztertu eta ikertzea, bideragarritasun txostena, Batzorde Exekutiboak erabakia hartzea eta, ondoren, behin inbertsioa eginda, horren gaineko kontrola eta jarraipena gauzatzea; azken xede gisa, desinbertsioa gauzatzea.

Partaidetutako enpresak aurreikusi dituen helburuak eskuratzeko jarraipen prozesuari dagokionez, sozietate kudeatzaileak hurrengo lerroetan jasotako zereginak burutuko ditu beharrezko betekizunak bete daitezen:

- Administrazio Kontseiluetan parte hartuko du.
- Enpresak egokitzat jotako bilera guztietara bertaratuko da.
- Enpresek ezarritako negozio-plana zaintzea.

Kasu gehienetan, oso tamaina txikiko enpresa txiki eta ertainak dira (ETE), eta horien xede nagusiak ekoizpena eta salmenta dira, eta kostatu egiten zaie “Seed Capital de Bizkaia”k kudeaketaren kontrolaz egindako planteamenduak barneratzea. Horregatik, negozioaren oinarrizko informazioa emateko hileko txostenak eskatzen dizkiegu, eta hiruhileko txostenak, urteko kontuen itxierarekin batera.

En el ejercicio 2010 hubo otra ampliación del Fondo suscrita íntegramente por Diputación Foral de Bizkaia por importe de 1.050.000,00 €

Así pues, teniendo en cuenta las inversiones realizadas, el Fondo Bi tiene una liquidez de 3.465.576,74 € para seguir invirtiendo en proyectos.

## 3.- Seguimiento de las empresas participadas

El conjunto de actividades desarrolladas por la Sociedad Gestora se podría sintetizar en la toma de contacto con la empresa candidata, el estudio y análisis en todas sus vertientes del proyecto de inversión, el informe de viabilidad, la toma de decisión que realiza el Comité Ejecutivo y, posteriormente, tras la realización de la inversión, el control y seguimiento de la misma y finalmente, como objetivo último, la materialización de la desinversión.

En el proceso de seguimiento para alcanzar los objetivos previstos por la empresa participada, la Sociedad Gestora vela por el cumplimiento de los requisitos necesarios desde:

- Su participación en los Consejos de Administración.
- Asistencia a cuantas reuniones se consideren oportunas por la empresa.
- La vigilancia del plan de negocio que establecen las empresas.

En la mayoría de los casos, son PYMES de muy pequeña dimensión, donde la producción y la venta son su principal objetivo, y los planteamientos que se les hacen desde “Seed Capital de Bizkaia”, sobre control de gestión, son de muy lenta asunción por su parte. Por ello, les exigimos informes mensuales con información básica sobre el negocio e informes trimestrales con el cierre de cuentas anuales.

**Seed Capital Sozietate Kudeatzailea, A.B.**
***Sociedad Gestora Seed Capital S.A***

Halaber, 2012ko ekitaldiaren itxieran, "Seed Capital de Bizkaia"ren partaidetza zorroa enpresa hauek osatzen zuten: 43 enpresak I Funtsean eta 4 enpresak Bi Funtsean.

## 4. Beste zenbait gai

### 4.1.- Ikerketa eta Garapeneko jarduerak

Seed Capital sozietateak ez du ikerketa eta garapeneko proiekturik egin eta ez du halakorik egiteko agindu hirugarrenei.

### 4.2.- Finantza arriskuak kudeatzeko politika

Seed Capital sozietateak ez du finantza arriskuak bereganatzeko arriskurik.

Ez du eragiketarik egiten nazioartean; beraz, ez du dibisa eragiketen kanbio tasak ekar ditzakeen arriskuak jasateko aukerarik.

### 4.3.- Finantza-tresnak

Entitateak ez du deribaturik kontratatzen, ezta bestelako finantza-tresnarik ere.

Al cierre del ejercicio 2012, la cartera de participaciones de "Seed Capital de Bizkaia" está constituida por: 43 empresas en el Fondo I y 4 empresas en el Fondo Bi.

## 4.- Varios

### 4.1.- Actividades en materia de Investigacion y Desarrollo

Seed Capital no ha realizado ni encargado a terceros proyectos de investigación y desarrollo.

### 4.2.- Politica de gestion de riesgos financieros

Seed Capital no está expuesta a riesgos financieros.

No opera en ámbito internacional, por lo que no está expuesta al riesgo de tipo de cambio por operaciones con divisa.

### 4.3.- Instrumentos Financieros

La entidad no realiza contrataciones de derivados, ni de ningún tipo de instrumento financiero.